



Ingurumenaren Aholku Kontseiluaren 41. bilera

41ª Reunión del Consejo Asesor de Medio Ambiente

Deialdia egin duena: Convoca:	Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián
Data, tokia eta ordua: Fecha, lugar y hora	2010eko urtarrilaren 11/ 11 de enero de 2010 Gobernu Batzordearen Sala/ Sala de Comisión de Gobierno 18:35etan / A las 18:35 horas
Amaiera ordua: Hora de finalización:	20:35ean / A las 20:35 horas
Harremanetarako pertsona: Persona de contacto:	Leire Sarobe (Haizea Ikerketa S.L.)
Telefonoa: Teléfono:	943 392229
Helbide elektronikoa Correo electrónico	haizea@haizeaikerketa.com
Gai-zerrrenda: Orden del día	1. Aurreko bilerako aktaren onarpena (2009ko ekainaren 25eko bilerari dagokiona) 2. Surfrider Foundation: 2010eko OZEANOETARAKO EKINTZAK 3. Urteko programazioaren proposamena 4. Tokiko Ekintza Planaren urteko ebaluazioa 5. Ordenantzak: 5.1. Eraikuntzen energia-eraginkortasuna eta ingurugiro-kalitateari buruzko Ordenantza indarrean sartzearen nondik norakoak 5.2. Telekomunikazio Sareetako Instalazio Erradioelektrikoak arautzen duen Ordenantzaren berrikuste prozesuari buruzko informazioa 6. Hondakinak 7. Ingurumen Saileko dirulaguntzak 8. Norberak leharkeena 1. Aprobación del acta anterior (correspondiente a la sesión del 25 de junio de 2009) 2. Fundación Surfrider: INICIATIVAS OCEÁNICAS 2010 3. Propuesta de programación anual 4. Evaluación anual del Plan de Acción Local 5. Ordenanzas: 5.1. Balance de la entrada en vigor de la Ordenanza de eficiencia energética y calidad ambiental de los edificios 5.2. Información sobre la revisión de la Ordenanza

	Instalaciones Radioeléctricas de Redes de Telecomunicación 6. Residuos 7. Subvenciones del Departamento de Medio Ambiente 8. Ruegos y preguntas
Parte hartu dute: 13 partaide	Asistieron: 13 personas

Ingurumenaren Aholku Kontseiluko kideak /Componentes del Consejo Asesor de Medio Ambiente

- **Ingurumenaren Aholku Kontseiluko lehendakaria/** Presidente del Consejo Asesor de Medio Ambiente:

Miguel Angel Díez Bustos (PSE. Ingurugiroko Zinegotzia / Concejal de Medio Ambiente)

- **Elkarteak, Herritarrak, Etab/** Asociaciones, Ciudadanos/As, Etc:

ARALAR – ALTERNATIBA (Ernesto Merino)

AZTI (Raul Castro)

EA (Ricardo Burutaran)

EGUZKI (Juan M^a Beldarrain)

INGEBA (Juan Antonio Saez)

KUTXAESPACIO (Mikel Goñi)

FUNDACIÓN CRISTINA ENEA FUNDAZIOA (Jose M^a Hernandez)

PP (Juan Andrés Segura)

- **Udal Teknikariak /** Técnicos municipales

Victoria Iglesias (Ingurumen Saileko Zuzendaria/ Directora del Departamento de Medio Ambiente)

Ana Juaristi (Aldaketa Klimatikoa eta Tokiko Agenda 21eko Zerbitzu burua/ Jefa del Servicio de Cambio Climático y Agenda Local 21)

- **Idazkaritza Teknikoa /** Secretaría Técnica

Haizea Ikerketa S.L. (Maider Etxaide)

Haizea Ikerketa S.L. (Leire Sarobe)

Miguel Angel Díez Bustos bilerari hasiera ematen dio gai zerrenda irakurriaz. Cristina Enea Fundazioak IAkeko kide izateko eskaera egin duela jakinarazten du, ordezkaria Txema Hernandez izango delarik, eta norbaitek eragozpenik duen galdetzen du. Eragozpenik aurkezten ez denez, kide berria onartzen da. 1. Aurreko bilerako aktaren onarpena (2009ko ekainaren 25eko bilerari dagokiona) Eguzkiko ordezkariak aurreko bileratik denbora asko igaro dela adierazten du. Ez dago ekarpenik eta ondorioz akta bere horretan onartu egiten da. [Gai zerrendako 2. puntua, <i>Surfrider Foundation: 2010eko OZEANOETARAKO EKINTZAK</i>, aurkeztu behar dutenak bileran ez daudenez, 3. puntuari ekiten zaio] 3. Urteko programazioaren proposamena Idazkaritza Teknikoak 2010erako aurreikusten den egutegia azaltzen du. Bilera honetaz gain, jadanik gaia ezarrita daukaten beste oinarritzko bi bilera izango dira (Ekaineko 2. hamabostaldia – Iraunkortasun Txostena, II Tokiko Ekintza Planaren urteko Ebaluazioa: TEParen ezarpen mailaren ebaluazioa, Hondartzen Kudeaketa Sistema, etab. – eta azaroa – IAKaren Ebaluazioa (2009-2010), Ingurumen Departamentuko 2011ko aurrekontuak, urteko programazioa osatzeko proposamenak eskatzea (2011), 2010eko Planeamenduko Kontseiluko eta Gizarte Konsteiluko bilerei buruzko informazioa, eta abar-). Hurrengo urteei begira, lehenengo bilera martxoan egingo da. Tokiko Ekintza Planaren urteko ebaluazioa aurkeztuko da hilabete horretan, bai mahai teknikoek egindako berrikuspen lanari nahiz planaren ezarpen mailari dagokienean (GFAk eskainitako aholkularitza). [Herritarren Partaidetzako kide den Amaia Agirreolea, 2016 Hiriburutzaren bulegoko Ana Espinosa eta Surfrider Fundazioko Marion Cabridens biltzen dira bilerara. Ondorioz gai zerrendaren 2. puntuari ekiten zaio: Surfrider Fundazioa: 2010eko OZEANOETARAKO EKINTZAK] Surfrider Foundation: 2010eko OZEANOETARAKO EKINTZAK Amaia Agirreoleak jakinarazten du ekimen hau hurrengo ostegunean aurkeztuko dela Goikoa jauregian 17:00etan. IAK ingurumenari buruzko partaidetzarako gunea izanda egokitzen jotzen dute ekimen hau bertan aldeztu aurretik aurkeztea IAkeko kideen iritzia entzuteko. Ana Espinosak azaltzen du ekimenak hiriburutzaren ardatzekin bat egiten duela (mugaz haraindiko ekimena da, balioetan hezten duena eta atlantikoa) eta horregatik bermatzen dela 2016 Bulegotik.	Miguel Angel Díez Bustos abre la sesión con la lectura del orden del día. Informa que la Fundación Cristina Enea ha presentado una solicitud para ser miembro del CAMA, siendo el representante de la misma Txema Hernández, y pregunta si hay algún inconveniente. Al no presentarse ninguna objeción, se acepta la incorporación del nuevo miembro. 1. Aprobación de acta anterior (correspondiente a la sesión del 25 de junio de 2009) El representante de Eguzki opina que ha pasado mucho tiempo desde la anterior sesión. No hay aportaciones al acta y se aprueba en consecuencia. [Debido a que las personas que deben presentar el punto 2. <i>Fundación Surfrider: INICIATIVAS OCEÁNICAS 2010</i> no están presentes en el momento, se procede a pasar al punto 3. <i>Propuesta de programación anual</i>] 3. Propuesta de programación anual La Secretaría Técnica procede a explicar el calendario previsto para el 2010, en el que además de la sesión presente, habrá en principio otras dos sesiones base con una temática ya establecida (2ª quincena de junio - Informe de Sostenibilidad, Evaluación anual del Plan de Acción Local II: Grado de implantación del PAL, Sistema de Gestión de Playas, etc.- y noviembre - Evaluación del CAMA (2009-2010), Presupuestos 2011 Departamento de MA, Solicitud de propuestas para programación anual (2011), Información sobre reuniones 2010 de Consejo de Planeamiento y Consejo Social, etc.-). De cara a próximos años la primera sesión se realizará en marzo, mes en el que se presentará la Evaluación anual del Plan de Acción Local, tanto en lo que se refiere al trabajo de revisión anual realizado por las mesas técnicas como al nivel de implantación de plan (asesoramiento prestado por la DFG). [Se incorporan a la reunión Amaia Agirreolea de Participación Ciudadana, Ana Espinosa de la Oficina 2016 de la Capitalidad Europea y Marion Cabridens de la Fundación Surfrider, por lo que se pasa a tratar el punto 2. <i>Fundación Surfrider: INICIATIVAS OCEÁNICAS 2010</i> del orden del día] 2. Fundación Surfrider: INICIATIVAS OCEÁNICAS 2010 Amaia Agirreolea informa que el próximo jueves 14 a las 17:00 en el Palacio Goikoa se presenta esta iniciativa, y al ser el CAMA un espacio de participación sobre medioambiente, consideran oportuno presentar previamente la iniciativa en el CAMA y escuchar las opiniones de los miembros. Ana Espinosa explica que la iniciativa coincide con los ejes (transfronterizo, educación en valores y atlántico) de la capitalidad, y que por ello se apoya desde la Oficina 2016. Marion Cabridens informa que la Fundación Surfrider es
---	--

Marion Cabridensek jakinarazten du Surfrider Fundazioa irabazi-asmorik gabeko GKE bat dela, egoitza Biarritzen duen mundu mailako erakundea eta ingurumena babestearen alde lan egiten duena –itsasertzak batik bat-. Ozeanoetarako Ekintzak deitzen den sentsibilizazio ekintza honetan 25.000 pertsonak hartu zuten parte 2009 urtean. Fundazioak proposatzen du, 2010eko Ozeanoetarako Ekintzen Europako hiriburua Donostia izatea. Ekimen honen barruan, martxoaren 18 eta 21 artean ikasleei, gazteei eta orokorrean publiko guztiari zuzendutako mugaz haraindiko herritarren mobilizazioa aurrera eraman nahi da. Azpilantaldeak antolatu dira eta dagoeneko badaude boluntarioak. Eguzkiko ordezkariak egindako galderaren aurrean, (ekimena zeinek kapitalizatzen duen) Marion Cabridensek azaltzen du, GKEen, administrazio publikoaren eta abarren partaidetzarekin bat egiteko asmo dela. [3. Urteko programazioaren proposamena puntuari ekiten zaio berriro] 3. Urteko programazioaren proposamena Idazkaritza Teknikoak azaltzen du bilera mugikorrak ezartzeko hainbat denbora-tarte ezarri direla urtean zehar agertu daitezkeen gaien arabera finkatuko direnak. Victoria Iglesiasiek jakinarazten du, gai hauen artean izango direla seguru aski, antenak, gazteentzako lokalen erregulazioa, ehiza, etb. Idazkaritza Teknikoak jakinarazten du, bere garaian IAKeko kideek 2010eko monografikoen lehentasun-ordena ezarri zutela. Urtaldi honi begira ez dago hainbeste monografiko egiteko dirurik, hori dela eta bi monografiko egitea proposatzen da, bata udaberrian eta bestea udazkenean. Victoria Iglesiasiek jakinarazten du azken monografikoetara bertaratutako IAKeko kideak gutxi izan direla. Aztiko ordezkariak monografikoen helburua zein den galdetzen du eta barrukoak edo kanpokoak izan behar duten ala ez. Eguzkiko ordezkariak dio batzuk barne-monografikoak izan direla eta beste batzuk mistoak, eta aukeran, bera barne-monografikoak izatearen alde dagoela informazio, formazio eta eztabaida gehiago egon dadin IAKeko kideen artean. Telefonía mugikorreko antenen monografikoaren inguruan dio galderak idatziz egiteko erabilitako metodoa mugatzailea dela eta ez dela sistema parte-hartzailea. Ana Juaristiren iritziz monografikoak IAKak ekarpenik egin dezakeen gaietara mugatu beharko lirake, agerian utziz adibidez, Jaizkibelgo monografikoa ez dagoela kategoria honen barruan. Eguzkiko ordezkariak jakinarazten du Uliako eta	una ONG sin ánimo de lucro ámbito mundial con sede en Biarritz que lucha por la conservación del medioambiente –sobre todo litoral–. Iniciativas Oceánicas es una acción de sensibilización en la que en 2009 participaron más de 25.000 personas. La fundación propone que Donostia sea la capital europea de Iniciativas Oceánicas 2010, en la que se pretende llevar a cabo una movilización ciudadana transfronteriza dirigida a escolares, juventud y público en general entre el 18 y el 21 de marzo. Se han organizado subcomités de pilotaje y ya hay voluntarios. Ante la pregunta del representante de Eguzki de quién capitaliza el evento, Marion Cabridens explica que la idea es contar con la participación de ONGs, administración pública, etc. [Se retoma el punto 3. <i>Propuesta de programación anual</i>] 3. Propuesta de programación anual La ST explica que se establecen varios periodos en los que poder establecer sesiones móviles dependiendo de temas que puedan surgir en el transcurso del año. Victoria Iglesias informa que entre estos temas previsiblemente se encuentren las antenas, la regulación de los locales para jóvenes, la caza, etc. La Secretaría Técnica informa que en su momento los miembros del CAMA realizaron la priorización de los monográficos para el 2010. De cara a este ejercicio no hay presupuesto para la realización de tantos monográficos, por lo que se sugiere la realización de dos monográficos, uno en primavera y otro en otoño. Victoria Iglesias informa que la asistencia de los miembros del CAMA a los últimos monográficos ha sido escasa. El representante de Azti pregunta cuál es el objetivo de los monográficos y si deben ser internos o externos. El representante de Eguzki opina que se han realizado internos y mixtos y que él optaría por que fueran más internos, con información, formación y discusión entre los miembros del CAMA. Respecto al monográfico de las antenas de telefonía móvil, considera que el método empleado para realizar las preguntas por escrito coarta y no es un sistema participativo. Ana Juaristi estima que los monográficos deberían ceñirse a temas en los que el CAMA pueda posteriormente realizar una aportación, explicitando que por ejemplo, el monográfico sobre Jaizkibel, no entra en esta categoría. El representante de Eguzki informa que se están elaborando los planes de gestión de los LICs Uliá y Jaizkibel, en el que quieren estar como parte interesada. Por otro lado, peticona que se solicite información para aclarar si la gestión de ambos espacios está siendo abordada conjuntamente.
---	---

Jaizkibelgo BGLen inguruko kudeaketa planak egiten ari direla eta bertan interesdun parte gisa egon nahi dutela. Bestetik, eremu bien kudeaketa modu bateratuan egiten ari den argitzeko informazioa eska dadila eskatzen du. Ana Juaristik bilduko du horren inguruko informazioa eta IAKari helaraziko zaio. Urteko programazioari dagokionean, EAKo ordezkariak faltan botatzen du Ingurumen Departamentuko 2010eko aurrekontuak aurkeztea. Nahiz eta hauek luzatutako aurrekontuak izan, 2011ko aurrekontuak aurkezten diren bezalaxe, 2010ekoak ere aurkeztu beharko lirarteke parte hartu eta iritzia eman ahal izateko itxi baino lehen. Victoria Iglesiasek jakinarazten du 2. kapituluari [Gastu arrunta] %15eko murrizketa egongo dela, kontu-sail handienak mantenduz baina gutxitze hau aplikatuz. Agenda 21eko Zerbitzuaz gain, Ingurumen Departamentuak Osasun Publiko eta Animalien Ongizateko atala barneratzen du (non aurrekontuaren zati handiena azpikontratentzat den) eta Jardueren Atala (non aurrekontua soldata ordaintzeko erabiltzen den). EAKo ordezkariaren iritziz, IAKan aurkeztutako zenbait gaik aurrekontuan eragina dute, hala nola, bosgarren edukiontzia Intxaurrondora zabaltzea edo zarata mapa egitea. Victoria Iglesiasek jakinarazten du ezohiko diru-hornidura proposatu dela zarata mapa eta lotutako ekintza planak eguneratzeko behar diren ekintza batzuk egiteko. Bosgarren edukiontzia dagokionean, beste auzoetan ezartzeko aukera aztertuko da urtaldi honetan, gogoraziz, gai hau ez dagoela Ingurumen Departamentuak dituen eskumenen artean. Aztiko ordezkariak proposatzen du, Ingurumen Departamentuko aurrekontua aurkezteko urteko monografiko bat egitea, IAKeko kideek ekarpenak egin ditzaten eta udal kudeaketan ingurumenak duen zeharrekotasun mailaren inguruko hausnarketa egin dadin. Era berean proposatzen du, batetik, Jaizkibelgo monografikoa "Itsasertzeko eremuak: Ulia eta Jaizkibel" izenburupean zabaltzea eta kudeaketa planak idazten ari den aholkularitza hizlari gisa gonbidatzea, eta, bestetik, "Zezenketak" monografikoa publikoari irekia izan dadila. Ana Juaristik, monografikoak burutzearen egokitasuna baloratzeko, asistentzia baieztatzea eskatzen die IAKeko kideei. Aipatutako monografiko biak egitea hitzartzen da egutegian horretarako ezarritako denbora-tarteetan. 4. Tokiko Ekintza Planaren urteko ebaluazioa Ana Juaristik jakinarazten du IAKaren bilera hau, hasiera batean 2009ko azarorako aurreikusita zegoena, Foru Aldundiak egindako TEParen ebaluazioaren	Ana Juaristi recabará información al respecto y se trasladará al CAMA. Respecto a la programación anual, el representante de EA echa de menos que al igual que se recoge la presentación de los presupuestos de 2011 del Departamento de Medio Ambiente, no se presenten los presupuestos de 2010, aunque sean presupuestos prorrogados, para dar la oportunidad de participar y opinar antes de que estén cerrados. Victoria Iglesias informa que habrá una reducción en el capítulo 2 [Gasto corriente] de un 15%, manteniéndose las partidas más grandes pero aplicando este decremento. Además del Servicio de Agenda 21, el Departamento de Medio Ambiente engloba la Sección de Salud Pública (en la que la mayoría del presupuesto se destina a las subcontratas) y la Sección de Actividades (en la que el presupuesto se destina únicamente a sueldos). El representante de EA considera que varias cuestiones anunciadas en el CAMA, como la ampliación del quinto contenedor a Intxaurrondo o la elaboración del mapa de ruido, tienen implicación presupuestaria. Victoria Iglesias informa que se ha realizado una propuesta de dotación económica extraordinaria para la realización de algunas actuaciones en torno a la actualización del mapa de ruido y los planes de acción asociados. Respecto al quinto contenedor, en el presente ejercicio se estudiará su implantación en otros barrios, recordando que no es un tema incluido dentro de las competencias del Departamento de Medio Ambiente. El representante de Azti sugiere la realización de un monográfico anual en el que se presente el presupuesto del Departamento de Medio Ambiente para que los miembros del CAMA puedan realizar sus aportaciones y a la vez se pueda realizar una reflexión en torno al nivel de transversalidad del medio ambiente en la gestión municipal. Asimismo sugiere que se amplíe el monográfico de Jaizkibel para que pase a ser "Espacios litorales: Ulia y Jaizkibel", se invite como ponente a la consultora que está redactando los planes de gestión y que el monográfico sobre "Corridas de Toros" sea abierto al público. Ana Juaristi solicita a los miembros del CAMA que confirmen su asistencia a los monográficos, para valorar la conveniencia de realizarlos. Se concierta la realización de los dos monográficos citados en los periodos establecidos a tal fin en el calendario. 4. Evaluación anual del Plan de Acción Local Ana Juaristi informa que la presente sesión del CAMA, en un principio prevista para noviembre de 2009, se ha retrasado debido a la demora que ha sufrido la evaluación del PAL realizada por la Diputación Foral.
--	--

atzerapenaren kariaz atzeratu dela. Argitzen du, orain arte ebaluazioa egiteko, inplikaturako eragileak telefonoz elkarriketatzen zirela, bakoitzak, bere ardurapean zeuden ekintzen garapenaren berri emateko, baina metodo honen bitartez ez zitzaiola jasotako informazioari posible zen etekin guztia ateratzen. Ondorioz, urteko ebaluazio honetarako, gaiaren arabera 8 mahai deitu eta bilerak egin dira (agendak bateratzeko arazoak zirela medio horietako bilera bi telefonoz egin ziren). Egun, informazio hori MUGI 21era pasatzen ari da, ebaluazioa egin ahal izateko erreminta informatikora. Aldatzeko proposatzen diren ekintzak aurkezten ditu: <i>4.1.3. ekintza Hirigintzako argibide-eskaerak sustatu:</i> ekintza berri honen helburua da lizentziak emateko prozesuan hirigintzako informazioa hasieratik ematea, era honetan prozesua arindu dadin. Enuntziatuak ez duenez argitzen ekintza zein prozesutan burutu, eta honek, nahasketa sor dezakeenez, izena aldatzea iradokitzen da dagokion ildo estrategikoari lotuta gera dadin, <i>Jarduerak</i>. <i>4.2.1. ekintza Udal Ingurumen Zigilu Berdea berrikusi eta sustatu hotel sektorearen "ingurumen jardunbide egokien" ezaugarri gisa.</i> Era berrian berridatzi: <i>4.2.1. Hotel sektorean Ingurumen-kudeaketarako Sistemak sustatu:</i> Zigiluaren bitartez ingurumenarekiko jokaera positiboak bultzatu nahi dira, baina oso zorrotza denez, azken urteetan establezimendu bakar batek lortu du. Ekintza berriz formulatzean beste kudeaketa sistemak sartu nahi dira, Ecolabela batez ere, establezimendu gehiago gehitu daitezten. Eguzkiko ordezkariak dio Zigilu Berdera establezimendu gehiago ez gehitzeko benetako arrazoiak bilatu behar direla, eta ez du argi ikusten egokiago den baldintza gutxiago betetzen dituzten establezimendu gehiago izatea ala komenigarriagoa den baldintza zorrotzagoak betetzen dituzten establezimendu gutxiago izatea. Miguel Angel Díez Bustosek argitzen du ekintza berriz formulatzen bada sistema biak mantentzen direla, eta Ecolabela gerora Zigilu Berdea lortzeko lehen pausoa izan daitekeela. Eguzkiko ordezkariak eskatzen du sistema bien informazioa helarazi dadila IAKeko kideengana beren iritzia emateko aukera izan dezaten. PPko ordezkariak eskatzen du informazio hau dauden beste sistemei zabal dadila. Ana Juaristik azaltzen du ez dela posible izango ostalaritzari aplikaturako ISO-14.000ri buruzko informazioa bidaltzea informazio hau erosi egin behar baita. Hala ere, ingurumen kudeaketarako baliabide honi buruzko azalpenak, hondartzen ISO-14.000ren emaitzak aurkezteko egin den bileran emango dira.	Aclara que hasta ahora la evaluación se realizaba a través de entrevistas telefónicas a los agentes implicados para que dieran la información sobre el desarrollo de las acciones bajo su responsabilidad, pero que mediante este método, no se sacaba todo el provecho posible de la información suministrada. En consecuencia, para esta evaluación anual, se han convocado ocho mesas temáticas y se han celebrado las reuniones (dos por vía telefónica por problemas de agenda). Actualmente se está trasvasando la información al MUGI 21, la herramienta informática para poder realizar la evaluación. Presenta la propuesta de acciones a modificar. <i>Acción 4.1.3. Potenciar las consultas urbanísticas:</i> esta nueva acción pretende que la información urbanística en el proceso de otorgar licencias se de desde el inicio, de forma que se pueda agilizar el proceso. Dado que el enunciado no explicita el proceso en el que realizar la acción y esto puede llevar a confusión, se sugiere cambiar el nombre para ligarlo a la línea estratégica a la que pertenece, <i>Actividades</i>. <i>Acción 4.2.1. Revisar e impulsar el Sello Verde ambiental Municipal, como distintivo de "buenas prácticas medioambientales" para el sector hotelero.</i> Reformularla como <i>4.2.1. Impulsar Sistemas de Gestión Ambiental en el sector hotelero:</i> el Sello pretende fomentar actitudes ambientales positivas, pero al ser muy estricto, en los últimos años sólo ha habido un establecimiento que lo ha logrado. Al reformular la acción, se pretenden incluir otros sistemas de gestión, sobre todo el Ecolabel, de forma que puedan incorporarse más establecimientos. El representante de Eguzki opina que hay que buscar las verdaderas razones por las que no se incorporan más establecimientos al Sello Verde, y no está muy seguro de que sea mejor tener más establecimientos pero que cumplan menos requisitos a tener menos establecimientos que cumplan requisitos más estrictos. Miguel Angel Díez Bustos aclara que con la reformulación de la acción se mantienen ambos sistemas, pudiendo ser el Ecolabel el primer peldaño para obtener posteriormente el Sello Verde. El representante de Eguzki solicita que se facilite información sobre ambos sistemas a los miembros del CAMA de forma que puedan dar su opinión. El representante del PP solicita que se amplíe esta información a más sistemas existentes. Ana Juaristi aclara que no va a ser posible enviar información sobre la ISO-14.000 aplicada a la hostelería pues requiere ser comprada. No obstante, las explicaciones en torno a este instrumento de gestión ambiental se abordarán en la sesión de presentación de los resultados de la ISO-14.000 de las playas. El representante de EA considera que debe garantizarse la pervivencia tanto del Ecolabel como del Sello Verde. <i>Acción 4.2.2. Estudiar el fomento y ampliación del Sello</i>
--	---

EAKo ordezkariak dio bai Ecolabelaren bai Zigilu Berdearen iraupena bermatu behar dela. 4.2.2. <i>ekintza Zigilu Berdearen sustapen eta hedapena aztertu, berau erregulatzen duen araudiko ingurumen baldintzak betetzen dituzten saltoki edo ostatu etxeei begira.</i> Ekintza hau honela aldatzea proposatzen da: 4.2.2. <i>Ingurumen-kudeaketarako Sistemak sustatu saltoki edo ostatu etxeetan,</i> mota honetako establezimenduek beren ingurumen-kudeaketa hobe dezaten. 8.3.3. <i>Parkeen eta lorategien mantentze lanetan iraunkortasun irizpideak kontuan hartzen jarraitu, eta euri uraren bilketa sustatu, ureztapenean erabiltzeko.</i> Ura ildo estrategikotik <i>Bioaniztasun</i> ildo strategikora pasatzen da. Eguzkiko ordezkariak jarduera zehatzik egiten den galdetzen du. Cristina Enea Fundazioko ordezkariak adierazten du Cristina Enea parkean euri-urak ureztapenerako jasotzen direla. 10.1.2. <i>ekintza Tabakalera Eraikina birgaitu, eraginkortasun energetikoko irizpideei jarraituz, esku-hartze sinboliko gisa eta jendartean oihartzuna izanen duen jarduera gisa.</i> Era berri batean azaldu: 10.1.2. <i>ekintza Tabakalera Eraikina birgaitu, B mailako eraginkortasun energetikoaren kalifikazioa lortzeko, esku-hartze sinboliko gisa eta jendartean oihartzuna izanen duen jarduera gisa.</i> sailkapen energetikoaren aldaketa Eraikuntzako Oinarrizko Arautegi berria dela eta. 10.2.1. <i>ekintza 50 urte baino gutxiagoko eraikinetan inspekzio teknikoaren burutzea sustatu, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak barneratuz:</i> idazkerak akatsa du, izan ere ikuskatze teknikoak 50 urtetik <u>gorako</u> eraikinetan egin behar da. Dena dela, ekintza bertan behera geratzen da ikuskatze teknikoak osasungarritasun eta egonkortasun alderdiak hartzen dituelako kontutuan eta ez eraginkortasun energetikoa, nahiz eta eraikin hauetan egindako hobekuntzek eraginkortasun energetikoan eragin positiboa izan, eta gainera, beste zenbait ekintzen bitartez alderdi hauetan hobekuntzak eragiten dira. Ana Juaristik jakinarazten du mahaiak urtean behin bilduko direla aurreikusten dela, baina zenbait ekintza zehatzetarako eragileekin lan taldeak osatu direla. 5. Ordenantzak: 5.1. Eraikuntzen energia-eraginkortasuna eta ingurugiro-kalitateari buruzko Ordenantza indarrean sartzearen nondik norakoak Victoria Iglesiasek adierazten du ordenantza 2009ko ekainaren 29z geroztik indarrean dagoela. Obra handiko 39 espediente daude; hauetatik 26ri ingurumen txostena eskatu zaie. Hauetatik 8 aldeko-kasu suertatu dira, 10ek informazio gehigarria behar dute eta soilik kasu bakar	<i>Verde para aquellos establecimientos comerciales u hosteleros que cumplan los requisitos medioambientales que se determinen en la normativa que regula el mismo.</i> Se propone modificar esta acción por 4.2.2. <i>Impulsar Sistemas de Gestión ambiental en establecimientos comerciales u hosteleros,</i> con el fin de animar a este tipo de establecimientos a mejorar su gestión ambiental. <i>Acción 8.3.3. Proseguir introduciendo criterios de sostenibilidad en el mantenimiento de parques y jardines fomentando la recogida de aguas pluviales para aprovecharlas en el riego.</i> Pasa de la línea de <i>Agua</i> a la línea de <i>Biodiversidad</i>. El representante de Eguzki pregunta si existe alguna experiencia concreta. El representante de la Fundación Cristina Enea Fundazioa comunica que en el parque de Cristina Enea se recogen las aguas de lluvia para el riego. <i>Acción 10.1.2. Rehabilitar, a modo de intervención simbólica y de repercusión pública, el Edificio Tabacalera con criterios de eficiencia energética A.</i> Reformularla como 10.1.2. <i>Rehabilitar, a modo de intervención simbólica y de repercusión pública, el Edificio Tabacalera con criterios de eficiencia energética B.</i> cambio en la clasificación energética debido al nuevo Código Técnico de la Edificación. <i>Acción 10.2.1. Promover la inspección técnica de edificios de menos de 50 años, incluyendo aspectos de eficiencia energética y energías renovables.</i> la redacción contiene una errata, ya que la inspección técnica se debe hacer para edificios de <u>más</u> de 50 años. En cualquier caso, anulación de la acción porque la inspección técnica tiene en cuenta aspectos de salubridad y estabilidad y por ley no pueden incluirse aspectos de eficiencia energética, amén de que cualquier mejora en estos edificios repercute positivamente en la eficiencia energética y además la mejora en estos aspectos se impulsa a través de otras acciones. Ana Juaristi informa que las mesas se reunirán previsiblemente una vez al año, pero que para algunas acciones concretas se han creado grupos de trabajo con los agentes implicados. 5. Ordenanzas: 5.1. Balance de la entrada en vigor de la Ordenanza de eficiencia energética y calidad ambiental de los edificios Victoria Iglesias informa que la ordenanza entró en vigor el 29 de junio de 2009. Existen 39 expedientes de obra mayor de los cuales en 26 se ha pedido informe medioambiental. De estos, 8 han sido favorables, 10 están en fase de obtención de información complementaria y solamente en un caso se ha iniciado la obra. 5.2. Información sobre la revisión de la Ordenanza Instalaciones Radioeléctricas de Redes de Telecomunicación
--	--

batean ekin zaie lanei.

5.2. Telekomunikazio Sareetako Instalazio Erradioelektrikoak arautzen duen Ordenantzaren berrikuste prozesuari buruzko informazioa

Ordenantza honen berrikuspena geldirik dago betebeharreko zuzentzari baten ondorioz, azaroan Zerbitzuen lege berria indarrean sartu bait zen. Lege honen arabera, eta baimenak errazteko helburuarekin, jarduera bat abiarazteko ez da beharrezkoa aurretiko baimenik eukitzea, baizik eta ikuskapen bidez jarduerak, behin abian dagoela, arauak betetzen dituela baieztatuko da. Ezaugarri bereziak dituzten eta ondorioz, arautze zehatzagoa behar duten jarduerak bakarrik beharko duzte aurretiko baimena.

Victoria Iglesias-ek jakinarazten du Aralar-Alternatiba taldeak ordenantzan osasun alderdiak sartzeko proposamena egin duela. Egun, ordenantza zuzenbide balorazioaren fasean dago.

6. Hondakinak

Victoria Iglesias-ek aditzera ematen du lankidetzaz hitzarmena dagoela erabilera bakarrekoko poltsak erabiltzen dituzten establezimenduekin, boltsa berrerabilgarrien erabilera sustatzeko. Foro bat ezarri da, non, establezimenduez gain, beste entitate motak dauden, Auzo Elkarteak adibidez.

Konpostaiaren inguruan, Amarako biztanleriaren %20ak egitasmoan parte hartzen duela jakinarazten du, familiako 175 gr. jasotzen direlarik batezbeste. 2010 urtean zehar Amara eta Loiolako Erribera auzoetako familia guztientzat zuzendutako sentsibilizazio kanpaina egingo da, familia partehartzaile kopurua gutxienez %5 igotzearren. Helburua bilketa areagotzea da esperientzia beste auzo batzuetara zabaldu ahal izateko. Proiektuari 124.000€tako kostua balioetsi zaio (konpostaia plantako hobaria kontutan izan gabe), apirilerarte aurreko urteetako hilabeteko bilketa-prezio bera lortu delarik. Ingurugiro Sailak bere gain 31.000€tako kostea hartzen du (poltsak eta ontziak) eta Hiri-Mantentze eta Zerbitzuetako Sailak 93.000€ (biketa eta garraioa).

Eguzkiko ordezkariak uste du plastikozko boltsen murrizpen planteamenduak iruzurra direla. Konpostaiaren inguruan 2008an jasotzen zen berdina jasotzen ari dela adierazten du, bizpahiru urtetan aurrerapausorik eman ez dela adieraziaz. Bere iritziz tratamendu mota baten alde apostua egin da eta ondorioz ez dira dauden oztopoak gainditzen ezta beste sistemarik bultzatzen. Gogorarazten du aurreko Ingurumeneko Zinegotziak agindu zuela 2012 urterako konpostaia proiektua Donosti guztian zehar jarrita egongo zela.

[PPko ordezkariak bilera uzten du]

Redes de Telecomunicación

La revisión de esta ordenanza está paralizada debido a la entrada en vigor en noviembre -a raíz de una directiva de obligado cumplimiento- de la nueva Ley de Servicios. Según esta ley, y con el objetivo de simplificar las autorizaciones, no hay que esperar a una autorización previa para poner en funcionamiento una actividad, sino que una inspección confirmará el cumplimiento de las normas con la actividad ya en marcha. Solamente precisaran autorización previa actividades que por sus características especiales requieran una regulación más detallada.

Victoria Iglesias informa que Aralar-Alternatiba ha realizado una propuesta para incluir cuestiones sanitarias en la ordenanza. Actualmente la ordenanza está en la fase de valoración jurídica.

6. Residuos

Victoria Iglesias informa que existe un convenio de colaboración con establecimientos que utilizan bolsas de un solo uso con el fin de potenciar el uso de las bolsas reutilizables. Se ha establecido un foro en el que además de los establecimientos, están también otro tipo de entidades como las Asociaciones de Vecinos.

Respecto al tema del compostaje, informa que el 20% de la población de Amara participa en el proyecto, recogiendo una media de 175 gr. por familia. Durante el 2010 se realizará una campaña de sensibilización dirigida a todos los hogares de Amara y Riberas de Loyola, con el fin de incrementar al menos un 5% el número de familias participantes. El objetivo es incrementar la recogida para poder ampliar la experiencia a otros barrios. El proyecto tendrá un coste estimado de unos 124.000€ (sin descontar bonificación de depósito en la planta de compostaje) durante el 2010, habiéndose logrado que se mantenga el precio mensual de recogida de ejercicios anteriores hasta el mes de abril. El Departamento de Medio Ambiente asume el coste de 31.000€ (por bolsas y cubos) y el departamento de Mantenimiento y Servicios Urbanos asume el coste de 93.000€ (por recogida y transporte).

El representante de Eguzki opina que los planteamientos de reducción de bolsas de plástico son un engaño. Respecto al tema del compostaje, indica que se está recogiendo lo mismo que en 2008, por lo que en dos o tres años no se ha avanzado. Opina que hay una apuesta por un tipo de tratamiento y en consecuencia no se salvan los obstáculos existentes ni se potencian otros sistemas. Recuerda que el anterior Concejal de Medio Ambiente prometió que para el 2012 el proyecto de compostaje estaría implantado en toda Donosti.

[El representante del PP abandona la reunión]

7. Subvenciones del Departamento de Medio Ambiente

Ana Juaristi informa que ya está la resolución de las subvenciones 2009, retrasada por las alegaciones a la primera resolución. Se ha aprobado un total de 31.500€

7. Ingurumen Saileko dirulaguntzak Ana Juaristik jakinarazten du 2009ko diru-laguntzen ebazpena, lehenengo ebazpenari egindako alegazioen ondorioz atzeratu egin zena, jada atera dela. 31.500€ onartu dira guztira, bi kontzeptutan banaturik: erakundeek kudeaketa eta proiektu zehatzak. Azken hauen kasuan, ugari aurkeztu dira; ondorioz erabaki da, 3.000€ baino gutxiagokoei %100 ematea eta 3.000€ baino gehiagoko proiektuetan, balorazio teknikoa egitea eta lortutako sailkapenaren arabera zenbatekoa esleitzea, gehienez ere proiektuko 9.000€ esleituz. Interesgarria deritzo ingurumen arlokoak ez diren lau erakundek eskaria egin izana. 2010eko diru-laguntzak %15aren murrizketa jasango du. Eguzkiko ordezkariak proposatzen du murrizketa handiagoa izatea dirulaguntza kontzentratuetan dibertsifikatuetan baino, hau da, gutxi jasotzen duenari asko ez kentzea, honela murrizketa mailakakoa izan dadin, erakunde aniztasuna ahalmentzeko. Ana Juaristik adierazten du hori dela erabilitako metodologiarekin lortu nahi dutena. 8. Norberak lekarkeena Ana Juaristik jakinarazten du aurreko bileretan egindako eskariei buruzko informazio gehigarria bidaliko dela. Bilera amaitzen da.	distribuidos en dos conceptos: gestión de asociaciones y proyectos concretos. En el caso de los proyectos, se ha presentado una gran cantidad de los mismos, por lo que se ha optado por subvencionar al 100% los proyectos con una cuantía inferior a 3.000€ y, de cara a aquéllos que comportan una cuantía superior a 3.000€, realizar una valoración técnica y adjudicar la cantidad según la clasificación obtenida de esta valoración, estableciendo un tope máximo de 9.000€ por proyecto. Considera interesante el hecho de que cuatro asociaciones no ambientales hayan presentado solicitudes. De cara a la subvención del 2010, habrá una reducción del 15%. El representante de Eguzki propone que los recortes afecten más a las subvenciones concentradas que a las diversificadas, esto es, que al que recibe poco no se le quite mucho, de forma que el recorte sea progresivo para así permitir una mayor diversificación de entidades. Ana Juaristi expone que esa es la filosofía que persiguen con la metodología utilizada. 8. Ruegos y preguntas Ana Juaristi informa que se enviará información complementaria sobre solicitudes realizadas en sesiones anteriores. Finaliza la reunión.
---	--